

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko apirilaren 23a. IX. urtea. 2.581. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Zurrumurruen eragina aztertuko dute arrazakeriari aurre egiteko

Amasa-Villabonako Mintzola zentroan prestakuntza tailerrak antolatu dituzte hainbat eragileren artean, bihartik hasita **02**

## Aingeru eta Anjel Castro izan dira azkarrenak Ñañarri Rallyesprintean

Jon Davoz eta Vicky Gorriz izan dira bigarren, eta Mattin Villares eta Andoni Blas, hirugarren; guztira 74 autok parte hartu dute proban **02**



Ñañarri Rallyesprintean parte hartu zuen autoetako bat. I. TERRADILLOS



JONE AMONARRIZ

→ **Joseba Otaegi gehiago izanda.** Aizkolari zizurkildarrak apustua irabazi dio Antonio Senosiaini Tolosako zezen plazan. Otaegi «gustura» geratu da egindako lanarekin eta aurrera begira ez du beste apusturik buruan. Hogei kanaerdiko moztu du aizkolari bakoitzak, eta Otaegik bi minutu baino gehiago atera dizkio aurkariari. **07**

## Gobernuen erreformek «krisian gehiago sakontzen» dutela dio LABek

Aberastasun banaketan oinarritutako eredu berria eskatu du sindikatuak, eta maiatzaren 1erako manifestaziora deitu ditu herritarrak **03**


## Emakume bat hil da Anoetako geltokian, trenak harrapatuta

Trenbidea gurutzatzen ari zenean harrapatu zuen trenak 28 urteko emakumea; geltokietako pasabideetan aldaketak eskatu ditu Eguzkik **02**

Sartu gure webgunean  
[tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

Jarraitu albisteak  
Twitter bidez  
[@hitzatolosaldea](https://twitter.com/hitzatolosaldea)

hitza info



Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"





Prestakuntza tailerren antolatzaileak eta laguntzaileak. A. IMAZ

## Zurrumurruek aurka tailerrak antolatu dituzte, Villabonan

Prestakuntza tailerretan izena emateko aukera zabalik dago; ikastaroak bihar hasiko dira, Mintzolan

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Arrazakeriak elkarbizitzan duen eragin kaltegarriari aurre egiteko asmoz, zurrumurruek eragina aztertuko dute ondorengo hilabeteetan Villabonako Mintzolan.

Prestakuntza tailerren helburua, norberak ahal duen heinean, zurrumurruekin amaitzea da. Horretarako hainbat jardunaldi antolatu dituzte Amasa-Villabonako Udalak, Tolosaldea Garatzenek, Mundu bat Tolosaldeanek eta SOS Arrazakeriak. Tailerretan jadanik 26 lagunek eman dute izena, baina oraindik edonorentzat dago lekua. Horretarako, edo informazioa lortzeko, 943 65 45 01 zenbakira edo *immigratzioa@tolosaldea.net* helbidera idatzi behar da.

### ↓ Prestakuntza tailerrak

#### BIHAR, APIRILAK 24

■ **18:00etan, Mintzolan.** Begiruneko Xabier Aierdi irakaslearen eskutik, *Kulturak eta identitateak. Aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumurruak.*

#### APIRILAK 30, ASTEARTEA

■ **18:00etan, Mintzolan.** SOS Arrazakeriak-eko Agustin Unzu-runzagaren eskutik, *Zurrumurruek aurkako erantzunak.* Eskualdean diren zurrumurruek datuen azterketa.

#### MAIATZAK 10, OSTIRALA

■ **18:00etan, Mintzolan.** Rafa Crespo Uberoren eskutik, *Nola funtzionatzen duten zurrumurruek, nola eragiten digun zurrumurruek birusak.* Ondoren, *Ekintzarako lanabesak* izeneko tailerra.

#### MAIATZAK 15, ASTEAZKENA

■ **18:00etan, Mintzolan.** Zer egin dezakegu Tolosaldean zurrumurruek aurre egiteko?



Istripiuaren ondorengo unea. I.T.

## 28 urteko emakume bat hil da Anoetan, tren batek harrapatuta

Heriotza berri honen aurrean, Eguzki talde ekologistak aldetak eskatu ditu trenbide pasabideetan

**Erredakzioa** Anoeta

Emakume bat hil zen larunbat eguerdian Anoetan, tren batek harrapatuta. 12:40 inguruan gertatu zen ezbeharra. Antza, emakumea trenbidea gurutzatzen ari zen, eta Donostiako noranzkoan zihoan Bartzelonatik Irunerako bidea egiten duen trenak harrapatu zuen. Momentuan hil zen. Ertzaintza, larrialdi zerbitzuak eta auzitegi medikua ezbeharra gertatu zen lekuan izan ziren gertatutakoa ikertzen. Lekuokoa adierazi zuten, Anoetara ailegatu zen trenetik jaitsi zen 28 urteko emakumea, eta trenbidea zeharkatzen zela zihoanean harrapatu zuen beste trenak.

#### Eguzki, bost urte salatzen

Bost urte daramatza Eguzki talde ekologistak Gipuzkoako trenbide sarea hobetu behar dela aldarrikatzen, batez ere, oinezkoentzat dauden pasabideak. 17 gune arriskutsu identifikatu ditu Eguzki taldeak Gipuzkoan. Urtero heriotzak egon arren, instituzioek eta trenbide enpresa arduradunek ez dutela ezer egiten salatu dute Eguzkitik. Lurrazpiko pasabideak apenas dagoela esan dute talde ekologistatik, eta RENFERi kritika zorrotza egin diote, arazo honen aurrean duen jarreragatik.

### ↓ Iragarki laburrak

#### ALOKAGAI

**Etxebizitza.** Amezketan, alokairuan jartzeko etxebizitza bat eskaintzen da. 645 73 45 84.



Huyck Wangner-eko langileak larunbatean, Alemaniatik itzuli ostean . . . I.T.

## Helburu guztiak bete dituzte Alemaniako bidaiari

Elkartasun handia jaso dutela esan du Mikel Zabaletak; borrokan jarraitu behar dela gehitu du

**A. Imaz** Zizurkil

Zizurkilgo Huyck Wangner-eko langileak Alemanian izan dira, lau eguneko bidaiari. Multinazionalen zuzendaritzarekin hitz egiterik izan ez badute ere, helburu guztiak bete dituztela azaldu zuen Mikel Zabaleta ELA sindikatuko ordezkari larunbatean, autobusetik jaitsi orduko egindako lehen balantzean.

Tolosatik irten zirenean Alemanian zer aurkituko zuten ez zekitelako esan zuen Zabaletak; itzuleran, elkartasun izugarria jaso dutela azpimarratu zuen: «Oso bidaiari aberasgarria izan da. Bertako langileen, komitearen eta IG

Metall sindikatu erraldoiaren babes handia jaso dugu. Metalgintzan Europako sindikaturik handiena den honen ekitaldi batean parte hartzeko aukera izan genuen, eta bertan, milaka alemaniarren aurrean hitz egin genuen, euren elkartasuna jasoz».

Zuzendaritza urduri ikusi dutela esan zuen Zabaletak, izugarriko segurtasun neurriak hartu baitzituzten euskaldunen bidaiarien aurrean. IG Metall-ekin eta hango komitearekin egindako batzarrean, informazio ugari elkartrukatu dutela esan zuen Zabaletak: «Multinazionala Europa osoko lanategietan langileak beldurtu nahian dabil, ez hemen bakarrik. Espero dugu bilera hori askoren lehena izatea».

Bidaia posible egin duten sindikatuko kide guztiei eskerrak eman ondoren, mobilizazioei dimentsio berri bat emanaz, borrokan jarraitu beharra dagoela esan zuen Zabaletak.

### → Laburrak

#### Kuadrilla eguneko bilera bihar egingo dute

**ANOETA** › Anoetako Jaietako kuadrilla eguna antolatuko bilera bihar egingo dute, hilaren 24an, 19:00etan. Batzarra udal-letxean egingo da, eta bertara Anoetako kuadrilla guztiak deitu dituzte, denen artean euren jaietako eguna antolatzeko helburuarekin.

#### 'Jolas eta zilarrezko txartela' ikuskizuna, gaur

**ZIZURKIL** › Atzo hasi zen Zizurkilgo XI. Antzerki Astea. Larunbatera bitarte, ia egunero antzerki emanaldiak ikusteko aukera gongo da. Gaur, 6-12 urte bitarteko haurrentzat Jolas eta zilarrezko txartela ikuskizuna egongo da 11:00etan, eta 15:15ean Atxulondo kultur etxean. Hurrengo emanaldi ostegunegun izango da, Pedro Mari Otaño-ko ikasleen eskutik.

#### Txosna batzordeak bilera egingo du ostegunegun

**IBARRA** › Gazte festei eta Ibarako Jaiei begira lanean hasi da txosna batzordea. Txosna jarri nahi duten eragileek hitzordua ostegun honetan dute, hilaren 25ean, Ibarako kultur etxean. Txosna batzordearen bilera 19:30ean hasiko da.

#### Bordondantzaren entseguak ostegunegun

**TOLOSA** › San Joan eguneko Bordondantza prestatzeko entseguak ostegunegun egingo dituzte. Hurrengo, beraz, hilaren 25ean izango da Tolosako Usabal kiroldegian, 20:30etik aurrera. Entseguak ekainaren 24a iritsi bitarte egingo dituzte.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Villabonako plazan egindako agerraldia. INIGO TERRADILLOS

# Aberastasun banaketan oinarritutako eredu berria eskatu du LABek

‘Borrokatu, matxinatu eta irauli Euskal Herria’ lelopean, manifestazioa egingo dute maiatzaren 1ean erreformen aurka

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Aberastasun banaketan oinarritutako lan harreman eta babes sozial eredu berria aldarrikatu du Euskal Herrirako LAB sindikatuak, eta hori defendatzeko, maiatzaren 1ean, 12:00etan, Hernaniko Gudarien plazatik abiatuko den manifestaziora deitu ditu herritarak.

LABek, gobernuek azken urteetan eginiko erreformak «krisi ekonomikoan gehiago sakontzen

dutela» adierazi zuen, eta horien ondorioz, «langileak pobretzearen kontura, aberatsak gero eta aberatsago direla, eta eskubideak murriztu eta zerbitzu publikoak gutxitu direla» salatu zuen.

EAEko agintarien aurka ere azaldu ziren: «Ez dira atzean geratu, eta EAJK inoiz prestaturiko aurrekontu antisozialenak aurkeztu ditu. Administrazio publikoak funtzionarioen lan baldintzak dekretu bidez onartu ditu negoziatioari lekuri utzi gabe».

Erreforma hauen ondorio gisa, eskualdeko langabeziari erreparatu zioten. «2008ko abenduan, 1865 langabetu zeuden Tolosaldean, eta gaur egun 3212 daude, %15,57ko langabezia tasarekin».

Horrez gain, langileen baldintzetan «atzerapausu izugarriak

izaten ari direla esan zuen LABek. «ERE edo lan baldintzen oinarriko aldaketan bidez, eskualdeko langileriaren zati handiena hitzarmenik gabe geratzeko arriskuan dago, negoziatio kolektiboan lan harremanak desarautzeko bidean sakontzeko eginiko erreformen ondorioz».

Hori dela eta, burujabetza politiko eta ekonomikoa, eta aberastasun banaketan oinarritutako lan harreman eta babes sozial eredu berria aldarrikatzeko *Borrokatu, matxinatu eta irauli Euskal Herria* lelopean, maiatzaren 1ean Hernanin egingo den manifestazioarekin bat egin du LABek. Gainera, eskualdean aldarrikapenak ere egitae beharrezkotzat jo du sindikatuek «alternatibak eskualdetik eraki behar baitira».

## Gure haragijaleak



**Bioaniztasunetik**

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Jada hogeita hamar urte bete-ko ditut igande honetan. In- guruko jendeak mila aldiz errepikatu dit: «Hi!!! Hirugarren zenbakie harrapatuek eh?» Xele- breena da, esaldi hori esan didaten guztiek 40 urtetik gora dituztela. Inbidia ote? Izorrai!!!

Nonbait *hirugarren zenbakian* sartuko naizen etapa honetara er- ginda edo, nire garunaren barre- neko zatirik primitiboena aktiba- tu da eta beti bezala, ehiza eta ha- ragiaz pentsatzen hasi naiz. Gainera, bazkaltzeko behi txuleta erdi egin bat jan dut, gora haragia! Jan dezatela brokolia belarjaleak.

Haragijale bikain bat izan nahi duen bizidun orok, ezinbestean, urdail muskulutsu bat eduki be- har du, azido ugariekin, jaten duen haragi oro disolbatu eta ahal di- tuen elikagai gehien lortzeko. Bai- na noski, haragi hau barrura sar- tzeke, ahotzar handi bat edo jana- ria txikituko dituen hagin zorrotzak behar dituzte.

Noski, ezaugarri hauek, mundu guztiko haragijaleek dituzte, be- raz, ez dira brometako bizidunak! Mila aldiz nahiago mendian belar- jale batekin topatu, haragijale ba- tekin baino.

Gezurra badirudi ere, gure eus- kal fauna ia galdu honetan, haragi- jale mordoak ditugu. Inor ez da be- netan arriskutsua, gainera, eus- kaldunok lan handiak hartu ditugu historian zehar haragijale hauek gure inguruetatik desager- tu arazteko. Euskaldunen lagun bikaina omen da makila, baina es- kopeta ere oso gustukoa dugu gure lur maite honetan!

Gure artean dauden haragijale gehienak txikiak dira, hala nola, erbinude, lepozuri edo leporria. Beste batzuk, ertainak dira, azko- nar eta azeriak adibidez. Eta badi- tugu handi xamarrak direnak ere, guztiak ia desagertzeko zorian, otso iberiarra eta hartz arrea beza- la. Nonbait, haragijale handiei es- kopetarekin apuntatzea errazagoa da.

Betidantik eman zaie haragijale- ei fama txarra, adibidez, otsoari. Txikitatik erakutsi digute hori. Txanogorritxuren amona otsoak jan zuen, gero ehiztari kirurgilari batek sabeletik atera zuen arte. Hiru txerrikumeei ere otso nahiko memelo batek, komeri galantak eman zizkien. Zer esanik ez zazpi antxume gaixoei, hauek, otso biz- korrago batek jan zituen eta berri- ro ere, ehiztari kirurgilari batek atera zituen otsoaren sabeletik. Ipuinetako ehiztariak, lan ordu er-

diak ehizatzen eta beste erdiak ki- rurgilari lanak egiten. Ez dira ez makalak, ipuinetako ehiztariak... ez horixe!!!

Fama kaxkar honekin, gure otso maiteak aspaldi utzi zion gure basoetan ulu egiteari.

Berdina gertatu zaio gure hartz arreari. Gure hartza, hartz arrea, handia eta arriskutsua imajina- tzen dugun arren, Pirinioetako hartz arrea omen da munduko hartzik txikiena. Hartz arreak zuen arazo nagusia, bizitzeko eremu oso zabalen beharra zen. Urtean zehar milaka kilometro egiten ditu sasoiaren arabera eli- kagai ezberdinak bilatzen. Hiber- nazio aurretik, atsegin ditu pagadi eta hariztiak, beraien ezkur elika- garria jan eta janari erreserba han- diak biltzeko. Behin hibernaziotik esnatuta eta ezkurra ez denean ugaria, gaztainondoetara jotzen dute gaztainak jatera. Gero udabe- rrian, goi mendiko larreetan bar- rrena dabilta erlaunzi eta sastra- kadietako fruitu gorrien bila.

Noski, hartzaren dietan haragia apur bat ere sartzen da eta noiz- behinka bada ere, ehizatzea atse- gin du. Hala ere, jaten duen hara- giaren gehiengoa, hildako anima- liak eta sagutxo txikiak dira.

Haragijale handiak utzi eta ha- ragijale txikiagoei begiratu, poli- tena azkonarra dugu. Animalia xe- lebre hau, Euskal Herrian oso hedatua dugu. Zelai eta basoak atsegin ditu, batez ere hosto ugari- ko baso estaliak, hauek, egunean zehar gordetzeko aukera bikaina ematen baitie. Atsegin ditu ere gi- zakiak landatutako zerealak eta eta ez da harriztekoa, gauean ze- har artasoroetan barrena azkona- rrak ikustea. Baina bere elikagai gogokoena zizareak omen dira, beraiek biltzeko usaimen bikai- na dute eta lurreen zuloak egiteko lau atzaparrekin armaturik dau- de.

Bukatzeke, gurean dugun hara- gijalerik txikiena ekarriko dugu gure zutabe honetera: erbinudea. Bizkar alde marroia eta sabel- dea zuria duen haragijale arin ho- nek, soilik 30 zentimetro neurtzen ditu... animalia beldurgarria da benetan! Animalia txiki hau, bera baino txikiagoak diren sagutxo- kin elikatzen da, eta atsegin ditu belar altuko belardiak, erraz ezku- ta baitaiteke bertan. Gainera oso lurraldekoak dira, jao eta hiru hi- labeteetara, kumeak jada beraien lurraldearen bila alde egiten dute. Ez gizakia bezala, 40 urtera arte gure habitxoan egoten baikara!

Eta gure fauna eta florari buruz informazio baliagarria bilatu nahi duen orok, jo dezala [www.euskalnatura.net](http://www.euskalnatura.net) orrialdera eta ekokulturren txoko xume honetako biologo-konpostatzaile honekin harremanetan jartze- ko... edo apirilaren 28an zorion- tzeke, [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com).

Gutuna

## Uretaren erantzuna EAJri

Gorengo Auzitegiak, Uretaren aldeko erabakia hartu eta gero, 2010eko martxoaren 10ean alegia, data hartatik hiru urtera go- goratu zaio EAJri, Ureta jipoitu behar duela. Batzoki berriaren inaugurazioa dela eta aitzakia hartuta.

Jakinda eta sinesturik gau- den, gure Ureta Etxea 1932-33az geroztik, Uretarena zela, garai hartako buruzagiek argi eta gar- bi utzi zutelako jabetasuna. Urte mordoan igaro dugu aipatutako alderdi politikoak eta guk, auzi- tegiz auzitegi elkarren arteko lehian. Azkenean Justiziak nor-

mala den bezala, Ureta-Etxea gurea zela eta ez EAJrena eraba- ki zuen.

Orain EAJ azaldu da biktima antzera, gure aurkako "loretxo" batzuk eskaintzen "justiziako itzuli-mitzuliak, sakabanake- tak, interesa... epaiketaren era- bakia irentsi ezinik bezala.

Esan dezagun Ureta Inmobi- liarria S.A. ren inguruan, 280 ak- zionista inguru dituela. Bertan, erabakiak, Akzionisten Batzar Nagusian hartzen direla, Admi- nistrazio Kontseiluaren txosten edo informarean arabera. Admi- nistrazio kontseilua, hasi zenetik

gaur arte ez da berdina, baizik eta aldatzen joan da urteren po- derioz. Uretako akzionistek Ure- ta Etxearen jabe direnez, be- roiek erabakiko dute zer egin etxearrekin. Horretarako eskubi- de guztia dutelarik.

Bukatzeke, ez dugu ziurtasu- nik ikusten, gure aurrekoek gaur bizi balira, EAJri etxea utziko li- oketenik, batipat, alderdi horre- ke gure etxean egin dituen puska- ketak eta sarraskiak ikusi ondo- ren.

■ **Miren Lopez-Mendizabal.** Ureta- ko Lehendakaria

Irakurleen eskutitzek ezin dute 2.000 karaktere baino luzeagoak izan argitaratu ahal izateko.

Irurako IV Bailarako Herri Krosean 120 lagun inguruk hartu dute parte; Kilometroetako bideo klip ofizialaren azken zatia egiteko grabaketan ere jende ugari izan da.

# Eguraldia lagun, giro polita nonahi

Higo Terradillos

Aspaldian ez bezalako eguraldi etsegina egin du asteburua, eta aurrerantzean nabaritu da eskualdean antolatutako diren ekitaldietan. Mendi irteera, herri krosa, erromeria edota Kilometroetako bideo kliparen grabaketa, edozein aitzakia izan da ona kalera atera eta parte hartzaile, eta giro paregabea nabarmendu da guztietan.

Mendira joateko, esaterako, eguraldi onak hobe izan ziren herenegunago. Leiztako Mendibil mendiko taldeak Araba aldean izan ziren, eta Olano eta Arberriko gaurerak igotzen. Anas-Villabonako Aizkardi elkarteak Lizarran eta Vianna arteko Kodes mendi irtetuan izan ziren, 20 kilometroko itzulia egin zuten, eta tartean, Joar gaitura igotzen. Tolosako Alpiño Urtzuekoak, berriz, Nafarroatik (Aragoiti) abiatu ziren, Araban (Kripain) bukatzeko. Errioxako (ikuspegi ederrez gozatu ahal izan zuten) Kantauri mendilerroko Lapoblacion (1.275 m) eta San Tirso (1.331 m) mendiak igotzen zuten.

Kirola egiteko onak izan ziren herenegun, baita ere, Irurran, Izan ere, Kirol Astearen barnean, Bailarako IV. Herri Krosa izan zuten bertan. 120 parte hartzaile izan zuten, eta hauek malla desberdinetan banatuta egin zuten ibilbidea. Aurrenekoek edo 7. urte artekoak hazi ziren korrika, 300 metroko ibilbidea burutu zuten hauek, eta denek jaso zuten domi-

na helburua. Parte hartzaile gehien bat zirenen maila izan zen, 85 korrikalari txikirekin. Benjaminen txanda izan zen ondoren, ahoak, gero, eta azkenik, infantrial, kadeteak, beteroak eta helduek hartu zuten parte, elkarrekin. Asken hauek, 6.800 metroko ibilbidea egin zuten.

Irurarrak ez ezik, eskualdeko herrietakoak ere animatu ziren Irurri herrian zehar prestatu zuten ibilbidean korrika egitera. Udala «oso gustura» geratu da ekimenak izan duen harrerarekin, eta «oso giro polita» izan zela nabarmendu du.

Erromeri alata

Asteazko plazan, bestalde erromeria izan zen larunbat arratsaldean. Ebia kultur taldeak antolatutako taldeetako arkupeetan trikiti dominak izan ziren, eta gazteak zeta helduak gerturatu ziren bertara, asko dantaztera ere animatu zituzten.

Urkitako auzotarrek, berriz, Jakoba Errekonkondoren bisita izan zuten larunbatean. 26 lagun inguru elkartu ziren elkarrean, kudearen adituaren hitzak entzuten.

Bestalde, Kilometroetako bideo klip ofizialaren grabaketa ere egin zuten herenegun. Hain zuzen ere, bideoaren azken zatirako grabaketak burutu zituzten Tolosako Zerkausian, 100 lagun ingururaren laguntzarekin. Horieta asko euren laneko jantziekin ondu ziren, hala nola, subfuntzioz, irakastez, harakinez edota larrialdi zerbitzuetako langilez jantzita.



Tolosa **||** Alpiño Urtzuekoak Lapoblacion mendian, etxean San Tirso kusten delarik, eziz.



IFURU **||** 120 lagun inguruk hartu zuten parte herenegunago herri krosean, Irurran. Herriar ugari gerturatu zen kustrera, zati azkarrean



Asteasu **||** Erromeri izan zen larunbatean, udaltekiko arkupeetan, eziz.



Urkuiz **||** Jakoba Errekonkondoren bisita izan zen larunbatean Urkuizko elkarrean, eziz.



Tolosa **||** Kilometroetako bideo klip ofizialerako grabaketak egiten aritu ziren herenegun, Tolosako Zerkausian, 100 lagun inguruk hartu zuten parte, eziz.

## harpidedun izateak badu saria zozketa

**1 Casa Julian**  
**Bi laguntzako bazkaria edo afaria**

Santa Klara, 6 • Tolosa  
 Tel.: 943-67 14 17  
 www.casajuliandetolosa.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

**2 Hitza**  
**Mutilentzako Kirol Jertsea Neurria M**

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

**3 Donostiako Aquariuma**  
**Bi laguntzako bina sarrera**

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko data: **902-82 02 40** edo sartu **tolosaldea.hitza** informazio helbidean **ZOZKETAK** atalean. Astezozkoak ez dira, eguraldi eta oraineko grabaketa bidezkoak ez dira, eta bakoari argirik gabeko dirua.

**hitza**

**HITZAK** harpidedunentzat **sarrerak** pare bat du

**LAGUN ARO GBC**  
 Birusen Monda  
 19/20en Donostiako Birusen

Apirilak 27 • Larunbata  
 20:30ean • Tolosako Leizean

**HITZAK** harpidedunentzat **sarrera** pare bat du

**KMK13ren aldeko kontzertua**  
**BENITO LERTXUNDI KANTATUZ**

Apirilak 28 • Ostirala  
 20:30ean • Tolosako Leizean

Zozketan parte hartzeko, deialdi: **943 63 56 95** telefono zenbakia

**Kirolak**

**↓ Kirol emaitzak**

**ARETO FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**

**27. jardunaldia**

|                        |     |
|------------------------|-----|
| Aurrera Vitoria-Ibarra | 3-3 |
| Goierri-Laskorain      | 5-6 |
| Inter Eder-Egintza     | 5-3 |
| Bilbo-Tolosala         | 5-1 |

**Sailkapena**

|                      |            |
|----------------------|------------|
| 1. Aurrera           | 63p        |
| 2. Ibarra            | <b>62p</b> |
| 3. Bilbo             | 60p        |
| 4. Santurtzi         | 58p        |
| 5. Goierri           | 47p        |
| 6. Laskorain         | <b>41p</b> |
| 7. Tolosala Hirukide | <b>41p</b> |
| 8. Inter Eder        | 39p        |
| 9. Soloarte          | 35p        |
| 10. San Jorge        | 32p        |
| 11. Mallabia         | 29p        |
| 12. Zarautz          | 29p        |
| 13. Buruntza         | 28p        |
| 14. Egintza          | <b>25p</b> |
| 15. Sestao           | 16p        |
| 16. Gora             | 8p         |

**Hurrengo jardunaldia**

Ibarra-Zarautz

**Egintza-Sestao (jokatuta)** 2-0

Laskorain-Inter Eder

Tolosala Hirukide-Goierri

**AIZKORA**

**2013 URREZKO AIZKORA**

**BANAKAKO AIZKORA**

**TXAPELKETA,**

**URREZKO MAILA**

**23 URTEZ AZPIKOAK**

**Beran**

Kañameres III.a, Erasun, Saralegi eta Rodriguez II pasa dira finalerdietara.

**APUSTUA: Antonio Senosiain vs. Joseba Otaegi (20 kanaerdiko) Tolosa**

|                     |                |
|---------------------|----------------|
| 1. Joseba Otaegi    | <b>1:00:20</b> |
| 2. Antonio Senosian | 1:02:44        |

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKOA**

**29. jardunaldia**

Tolosa-Aloña Mendi 1-1

**Sailkapena**

|                 |     |
|-----------------|-----|
| 1. Oiartzun     | 66p |
| 2. Hernani      | 64p |
| 3. Real Union   | 59p |
| 4. Aretxabaleta | 54p |
| 5. Bergara      | 46p |
| 6. Berio        | 46p |
| 7. Hondarribia  | 43p |

**8. Tolosa 42p**

|                |     |
|----------------|-----|
| 9. Aloña Mendi | 39p |
| 10. Zarautz    | 33p |
| 11. Touring    | 33p |
| 12. Lagun Onak | 33p |
| 13. Beti Gazte | 30p |
| 14. Urola      | 30p |
| 15. Ostadar    | 28p |
| 16. Mondragon  | 28p |
| 17. Aurrera    | 26p |
| 18. Trintxerpe | 25p |

**Hurrengo jardunaldia**

Bergara-Tolosa

**PILOTA**

**BETERANOEN XARE**

**TXAPELKETA**

J. Balerdi eta J.Yurrita irabazleak izan ziren, 15 tantora jokaturiko bi partidak I. Caballero eta I. Artolaren aurka irabazita.

**SHARE ELKARTEA SARIA**

|                           |    |
|---------------------------|----|
| J. Lopetegui-J. Apeztegia | 40 |
| A. Lizaso-D. Vinuesa      | 33 |

**BURUZ BURUKO ESKU**

**PILOTA TXAPELKETA**

**Kanporaketak, Iruñea**

**Olaetxea 10**

Arretxe 22

**SASKIBALOIA**

**LEHEN MAILA**

**26. jardunaldia**

|                           |           |
|---------------------------|-----------|
| Lagunak                   | 57        |
| <b>Bide Bide Donostia</b> | <b>68</b> |

**Sailkapena**

|                              |             |
|------------------------------|-------------|
| 1. Mikeldi                   | 18-8        |
| 2. Asesoría SAF              | 18-8        |
| 3. Askartza                  | 18-8        |
| 4. Lizuan                    | 17-9        |
| 5. Atletico Sn Sn            | 17-9        |
| <b>6. Bide Bide Donostia</b> | <b>17-9</b> |
| 7. Mondragon Uni.            | 15-11       |
| 8. Tabirako                  | 14-12       |

**Hurrengo jardunaldia**

**Bide Bide Donostia**

Mondragon Unibertsitatea

**AUTOMOBILISMOA**

**VI. NAÑARRI RALLYSPRINTA**

**Sailkapena:**

|   |  |
|---|--|
| 1. Aingeru Castro eta Angel Castro (BMW M3 E36)         |  |
| 2. Jon Davoz eta Vicky Gorri (Mitsubishi EVO IX)        |  |
| 3. Mattin Villares eta Andoni Blas (Renault Clio Sport) |  |

**ATLETISMOA**

**Euskadiko Taldekako Txapelketa, Donostia: NESKAK**

|                           |               |
|---------------------------|---------------|
| 1. Atletico San Sebastian | 144pt         |
| 2. Bidezabal              | 138pt         |
| 3. Txindoki               | 118pt         |
| 4. Super Amara            | 114,5pt       |
| <b>5. Tolosa CF</b>       | <b>90,5pt</b> |

**MUTILAK**

|                           |             |
|---------------------------|-------------|
| 1. Real Sociedad          | 149,5pt     |
| 2. UPV/EHU                | 107pt       |
| 3. Atletico San Sebastian | 91pt        |
| <b>8. Tolosa CF</b>       | <b>65pt</b> |



20 kanaerdiko ebaki behar izan zituzten bi aizkolariak, pasa den igandean, Tolosako zezen plazan. JONE AMONARRIZ

# Joseba Otaegi: «Nik nire lana egin dut, eta gustura geratu naiz apustuarekin»

Zizurkildarrak bi minutu baino gehiago atera dizkio Antonio Senosiaini, Tolosan egindako apustuan

apustuan, eta enborrak erdibana eraman zituztela norgehiagokara. Modu honetara, Antonio Senosiain nafarrak enbor gogorrak

amaitzeko; Senosiainek, berriz, 1:02:44ean ebaki zituen 20 enborrak.

«Ez nuen pentsatu zenbat denbora aterako ote nion; berak lan ona egingo zuela pentsatu nuen, baina ez nizkion buelta gehiago eman», azaldu du Otaegik. Besteak beste, bere lana ondo egitera joan zen zizurkildarra, eta gustura dago loritutakoarekin: «Nik nire lana egin dut, eta gustura geratu naiz apustuarekin».

“  
Momentu honetan ez dut beste apusturik buruan, denboraldia oso luzea izan da eta»

**JOSEBA OTAEGI**  
Aizkolaria

**Atsedean hartzeko garaia**

Jokatu dituen bost apustuetatik laugarren garaipena du Otaegik. Aurretik, ordea, beste lehiarik ez du jokatu zizurkildarrak: «Momentu honetan ez dut beste apusturik buruan, denboraldia oso luzea izan da eta; abuztuan hasi nintzen Gipuzkoako txapelketarako entrenatzen, eta ia geratu gabe aritu gara orain arte, apustuarekin eta binakako txapelketarekin. Beraz, atseden pixka bat hartuko dut orain, eta gero udako erakustaldiak egingo ditut».

eraman zituen, eta Otaegi zizurkildarrak, berriz, enbor arruntak eraman zituen.

Hasieratik nagusi izan zen Joseba Otaegi, eta saio osoan zehar alde handiegirik atera ez zion arren, pixkana denbora tarteaz balduz joan zen aizkolari zizurkildarra. Lan erdiak eginda, minutu bat eta 18 segundoko aldea zuen Otaegik, eta bigarren erdian, aldea eusteaz gain, handitu egin zuen.

Horrela, 1:00:20eko denbora behar izan zuen Otaegik, lanak

**Itzea Urkizu** Tolosa

Bere lanarekin «gustura», garaile suertatu da Joseba Otaegi zizurkildarra, bere bosgarren apustuan, Antonio Senosiainen aurka. Pasa den igandean jokatu zuten apustua, 600 ikusle ingururen aurrean, Tolosako zezen plazan, eta 20 kanaerdikoak bi minutu azkarrago ebaki zituen zizurkildarrak.

Otaegik «ondo» ikusi zuen apustua barrutik: «Hasieratik alde txikia hartu nuen, eta ondo joan zen saioa. Aurretik joanda, normalean animoz ere hobeto ibiltzen da bat. Sufrituz aritu nintzen saio osoan, baina gustura amaitu nuen».

Aipatzekoa da, aizkolari bakoi-tzak 6.000 euro jokatu zituela

# Ruben Saralegi final erdietara, 23 urtez azpikoen txapelketan

**I. Urkizu**

Ruben Saralegi aizkolari leitzarra 23 urtez azpiko Urrezko Aizkora txapelketako finalerdietara pasa da, joan den larunbatean Berako (Nafarroa) Eztegarra pilota-

lekuan jokatu saioan hirugarren postua eskuratu eta gero.

Hasierako fasea lehen taldean jokatu zuen Saralegik, eta bigarren sailkatu zen bere taldean, hirur norgehiagokatik bi irabazita.

Bi taldeetako lehen bi sailkatuek finala jokatu zuten. Horrela, Julen Kañameres izan zen garailea, eta jarraian Ander Erasun, Ruben Saralegi eta Jon Rodriguez sailkatu ziren; guztiek finalerdia jokatu dituzte.

**Anoetako Udala**

**ANOETAKO UDALAK**

**KALE GARBITZAILA BAT**

**BEHAR DU**

**ORDEZKAPEN BAT EGITEKO.**

**DERRIGORREZKO BALDINTZAK:**

- Langabetua egotea,
- Euskarako lehen perfila izatea.

**BALDINTZA GEHIGARRIA:**

- Ikasketa maila: FP I

**CURRICULUMak aurkezteko eguna:**

- 2013ko apirilaren 26an, ostirala.

Anoeta, 2013ko apirilaren 22an.

## Aingeru Castro eta Anjel Castro garaile, Ñañarri Rallyesprintean

Markos Landa eta Joseba Iturrioz ibarrek istripua izan zuten lasterketan zihozazela

### Itzea Urkizu

Mungia Racing taldeko Aingeru Castro eta Anjel Castro izan dira VI. Ñañarri Rallyesprinteko irabazleak. Irurako Ikastolak Sardara lasterketa taldearen laguntzaz antolatuta, aurten ere, proba, eta «orain arteko parte hartzaile kopuru altuenetakoa» izan zen larunbatean, arduradunen arabera.

Gutzira 74 gidarik parte hartu zuten, beren gidarikideen laguntzaz, eta Nafarroako zein Euskal Herriko txapelketarako proba puntuagarria izanenez, gidari ezagun askok parte hartu zuten Ñañarri Rallyesprintean.

Lasterketako hiru txandak 61 gidarik soilik amaitu zituzten, eta txandak inongo atzerapenik gabe



74 gidarik parte hartu zuten larunbateko rallyesprintean. I. TERRADILLOS

egin zituztela azaldu dute antolatzailerak: «Gutzira aurreikusitakoaren arabera joan zen, eta gidariak esandakoaren arabera, ez zuten arazorik izan zirkuituan barrena eta irudipen onarekin geratu dira datorren urterako ere».

Aipatzekoa da, Ibarrako Markos Landa eta Joseba Iturriozek istripua izan zutela, Opel Kadett GSI 16V kotxearekin, eta ondorioz ez zuten proba amaitu.

Podiuma, beraz, horrela geratu zen: Aingeru Castro eta Anjel Castro izan ziren lehenak, Jon Davoz eta Vicky Gorriz bigarren sailkatu ziren, eta hirugarren postuan Mattin Villares eta Andoni Blas sailkatu ziren.

Azkenik, Irurako Ikastolako antolatzailerak bolondres aritu diren guztien lana eskertu nahi izan dute, eta baita udaleena nahiz babesleena ere.

## Apeztegiak eta Lopetegik irabazi dute xare txapelketa

Beteranoen mailan Joxi Balerdik eta Josu Yurritak osatutako bikotea gailendu da, bi partidak irabazita

Xareak igande arratsalde osoa hartu zuen igandean, eta Ametsa pilota eskolako ikasleen lagunarteko lehiak izan ziren hasteko.

Jarraian, Beteranoen Xare Txapelketako finala jokatu zuten, eta J. Balerdi eta J. Yurritak 15 tantora jokaturiko bi partidak irabazi zituzten, I. Caballero eta I. Artolari.

Azkenik, Share Elkartea Sariaren finala den igandean izan zen, Irurako trinketean; Julien Apeztegia eta Joxi Lopetegik suertatu dira aurten garaile, 44-33 irabazi eta gero.

◉ [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

### I. Urkizu Irura

Share Elkartea Sariaren finala den igandean izan zen, Irurako trinketean; Julien Apeztegia eta Joxi Lopetegik suertatu dira aurten garaile, 44-33 irabazi eta gero.



Apeztegia eta Lopetegik 40-33 gailendu ziren, txapela eskuratuz. J. AMONARRI

## Atletismoko neskek bosgarren sailkatu dira Euskadiko taldekakoan

Tolosa CFek denboraldia ez du espero bezain ondo hasi; mutilek ez diote lehen mailari utsi

### Erredakzioa

Asteburuan jokatu dituzte, Donostian, atletismoko Euskadiko Taldekako Txapelketako saioak, eta Tolosa CFeko neskek bosgarren postua lortu dute. Mutilek, berriz, bigarren mailan jardun beharko dute hurrengo urtean.

Iaz neskek hirugarren postua eskuratu bazuten ere, taldeko kideek bosgarren postua pozik hartu dute, «talde oso gaztea» baitute. Horrela, Helene Colomoren lana nabarmendu dute batetik, diskoko proban garaipena eskuratuta puntu asko lortu zituelako.

Sailkapen orokorrean, beraz, Atletico San Sebastian izan zen talde irabazlea, 144 punturekin; bigarren Bidezabal taldekoak sailkatu ziren, 138 punturekin, eta hirugarren postua Txindokiko neskek lortu zuten, 118 puntuarekin.

Tolosaren aurretik, eta beraz

laugarren postuan, Super Amara taldeak 114,5 puntu bildu zituen. Tolosako neskek, berriz, 90,5 punturekin bosgarren postua lortu zuten.

### Mutirik bigarren mailara

Mutirik dagokienez, bigarren mailara jaitsi ziren: «Jaitsiera oso parekatua izan zen: Tolosak 65 puntu lortu zituen, Txindokik 66 eta Artunduagak 67», azaldu dute.

Maila galduta ere, Tolosa CFko atletismoko taldea itxaropentsu dago, Gipuzkoako txapelketari begira.

**Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Hizki-Marrazki Ipuin Marraztuen lehiaketako sarituak, atzo, Anoetako Ikastolan egindako ekitaldiaren ostean. IGL

# Hizki-Marrazki Ipuin Marraztuen lehiaketan 193 ikaslek parte hartu dute

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, sariak banatu dituzte; gaurtik etzira liburuaren merkatu txikia izango da, Anoetan

an liburuaren merkatu txikia izango da. 0,50 zentimotik 3 euro bitartean erosi ahal izango dira liburuak. Merkatu txikia dela eta, liburuaren mailegu zerbitzua 16:00etatik 17:30era izango da.

## Eneritz Maiz

Gaur, Liburuaren Nazioarteko Eguna da. eta horren harira, atzo, Hizki-Marrazki Ipuin Marraztuen lehiaketako sariak banatu zituzten, Anoetan. Udalak eta Ikastolako antolatzaileak lehiaketan 193 ikaslek parte hartu dute, banaka edo binaka parte hartuz. Lau kategoriatan banatuta eman dituzte sariak.

Era berean, gaurtik etzira, 17:30etik 19:30era, udaletxe aurre-

**Alkizaren ere liburuaren azoka**  
Alkizako eskolak ere bigarren eskuko liburuaren azoka antolatu du, eta eskolaren atarian jarri dute. Saltzaile lanetan ikasleak arituko dira, ostirala bitartean.

09:00etatik 09:30era eta 16:00etatik 16:30era egongo dira, eta bihar 12:00etatik 12:30era ere egongo dira. Egun hauetan liburuaren bat erosi nahi duten ikasleek etxetik ekarri behar dute dirua eta ordu horietakoren batean beraien irakaslearekin joango dira azokara erosketak egitera. Azo-

## ↓ Sarituak

- **A kategoria.** Iker Carretero-Iker Alvarez; Garikoitz Artola-Beñat Nogales eta Hodei Niño-Aimar Colas.
- **B kategoria.** Maialen Muñoa; June Mendizabal-Izaro Aranzabe eta Irati Irazusta.
- **C kategoria.** Unai Urkola; Maria Lasa-Maider Loidi eta Koldo Descalzo.
- **D kategoria.** Ander Elola-Julen Martin; Maitane Urkola eta Rebeka Herrero.

kara edonor joan daitekeela adierazi dute eskolatik, eta liburuak garestienak bi euroko balioa izango du. Ateratako diruarekin eskolarako materiala erosiko dute.

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

- **Ametzeta.** Ametzeta kultur etxean odola emateko aukera izango da 18:30etik 20:30era.
- **Ibarra.** Ahozko ingeles eta frantses eskolak dohain antolatu ditu Ibarra Udalak. Urritik maiatzera izango dira, eta Ibarra errolatuta egotea, eta 1997an edo lehenago jaiotako ikas-

tea beharrezkoa izango da. Izena emateko aukera hilaren 30a bitartean dago zabalik. Euskara zerbitzuan edo kultur etxean eman daiteke. Informazio gehiagorako, 943 67 38 27 telefono zenbakira deitu daiteke.
- **Tolosa.** Nekane Juradoren eskutik, *Krisia emakumearen ikuspegitik* hitzaldia izango da, 19:00etan kultur etxean.
- **Tolosa.** Naturaldiaren jardunaldien barruan, 19:30ean, *Ibai*

*biziak izateko erronkak* mahai ingurua izango da Topic zentroan. Iñaki Antiguedad, Patxi Tames, Jose Maria Sanz Galdeano eta Hasier De los Rios izango dira hizlariak.
- **Zizurkil.** XI. Antzerki Astearren barruan, 11:00etan eta 15:15ean, *Jolas eta Zilarrezko txartela* ikuskizuna eskainiko dute, eta 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua izango da, Atxulondoko kultur etxean.

## Agurrak



**Zorionak!**  
**Jose Maria Lasa eta Jesusa Arostegi.** Diamantezko Ezteiak. Zorionak zuen familia guztiaren partetik!



**Zorionak!**  
**Enea Zubillaga Urrera (Areso).** Gaur urte 1. Zorionak eta muxu handi bat aitaxo ta amatxon partetik pottokil!

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

**agurrak**

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

- **Aribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
  - **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**Mauka berria** GAURKO ESKAINTZA

**Vela Smooth tratamendua**

THEYS EDERGINTZA  
La Salle etorbidea, 8-10  
20140 ANDOAIN  
Tel.: 943-59 37 28  
pga56@hotmail.com

**Prezioa**  
22€ ordu ordi  
32€ ordubate

**www.mauka.eu** **berria** taldea